

## EUSKALTZAINDIAREN ARGITARAPENAK

*Bilbo, 1987-XII-18*

*Ricardo Badiola Uriarte  
Argitarapenen Eragilea eta Batzordeko Idazkaria*

### A) EUSKALTZAINDIAK BERAK 1987.URTEAN ARGITARATUAK

#### A) 1. **Euskera** agerkaria (1986-2):

P. Xarrittonen Euskaltzaindian sartzea. Lexikologi erizpideak finkatzeko IV. jardunaldiak. Euskal azentu eta ebakeraz II. jardunaldiak. Atlasgintza. Euskaltzaindiaren agiriak. Herri-izenei buruzko adierazpenak. Batzar txostenak eta berriak sailak barnetzen ditu.

#### 2. **Euskera** agerkaria (1987,1)

Une honetan inprimategian dugu, azken frogetan. Bertan hurrengo sailak azalduko zaizkigu, hots:

Damaso Intza, Oieregi eta Aita Donostiaren mendeurrena.

P. Topet Etxahunen bigarren mendeurrena.

Gailaburrak, alegia: J. B. Orpustan eta K. Morvay.

Euskaltzaindiaren Agiriak. Herri-izenei buruzko adierazpenak. Batzar txostenak (Koldo Mitxelena, Jose Antonio Arana Martija, S. Calleja- X. Monasterio, A. Sagarna, Juan San Martin, Karmelete Rotaetxe).

Eta hilberria: Balendin Enbeita.

#### 3. *Linguae Vasconum primitiae*

Bernard Etxepare. Patxi Altunak paratua. (Berrargitarapena). Euskaraz inprimaturiko lehen liburuaren (1545) edizio kritikoa.

#### 4. *Euskal testu zaharrak (I)*

Euskararen Lekukoak 13. zenbakiduna. Jose M. Satrustegik paratua. Nafarroako euskararen lekuko da eta, batez ere, hilik dagoen goi-nafar-hegoaldeko euskalkia aztertu nahi dutenentzat baliagarri gertatu ahal da. Liburuak berrogeitamar atal dauzka, beste horrenbeste eredu desberdinekin.

Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

#### 5. *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania*

Euskararen Lekukoa 14. zenbakiduna. Une honetan inprimategian, azken frogetan dugu.

Fr. Luis Villasantek prestatua.

Inoiz argitaragabeko ikasbide edo dotrina dugu. Liburuua Mogelek, pertsona nagusientzat egitea nahi izan zuen.

Lavieuxvilleren ikasbidean oinarriturik dago, dirudienez. Lavieuxvilleren lan hau Euskararen Lekukoak 11. zenbakiduna dugu. 14. zenbakidun honetan, Mogelek, *Peru Abarca*-rekin batera, pastoral zereginetatik kanpo euskarak ba duela ahaltasunik ideiak azaltzeko adiera nahi du. Itxuraz bi kodize daude bat Arantzazun eta beste bat Derioko apaiztegian.

Fr. Luis Villasantek, liburuaren barne, kodize biok erkatu egiten ditu.

Argitarapen honek Bizkaiko Foru Diputazioko Kultura sailetik dirulaguntza jaso du.

#### 6. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*

Onomasticon Vasconia-2.

Jose M. Jimeno Jurio jaunak paratua.

Une honetan, inprimategian dugu, azken frogetan.

Iruñerriko leku-izenak biltzen ditu, bai agiri zaharretan daudenak, bai oraingo toponimia. Zenbait karta edo mapa ere azaltzen zaizkigu leku-izen bakoitza kokatzeko.

Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

#### 7. *Iparragirre*

Jagon-2. Elkarlanean buruturiko argitarapena, hots:

Paco Rodriguez de Coro, Justo Garate, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Manuel Lekuona (Goian Bego), Jose M. Satrustegi, Endrike Knörr, P. Xarritton,

Juan San Martin, Jose Antonio Arana Martija (hiru lan), Federico Zabala eta Ander Arana Bareño (index onomasticon).

Jose M.<sup>o</sup> Iparragirreraren heriotzearen (1881) lehen mendeurrena dela eta Euskaltzaindiak buruturiko lanen bilduma.

Liburu honen taitze, maketatze eta zehaztea Jose Antonio Arana Martijari zor diogu. Eskerrik asko Jose Antonio lankideari.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

#### 8. *Hitz-elkarketa/ 1*

Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordeak 1986.urtean zehar buruturiko lanaren ondorio eta emaitza dugu argitarapen hau. Liburu honek laguntza eskaini ahal du egungo irakurle, kazetari, idazle eta abarreko euskal buru-langileek, euskararen hainbat barne-lokarriz etxetik edo eskola bidez eskuratua duten ezaguera sendoagotu beharrean sentitzen dutenez bereziki, hitz-elkartuak nola erabili eta, haren beharrean gertatuz gero, nola eratu era artezago batez jakin dezaten.

#### 9. *Euskal gramatika. Lehen urratsak-1 (Eraskina)*

Gramatika batzordeak paraturiko lana. Argitarapen hau lehen liburuakia: *euskal gramatika: lehen urratsak-1* osatzera datorkigu, alegia:

hitzen ordena, *-ko* atzizkia eta deklinabide taulak ematen zaizkigu, banan banan, ereduzko eta zalantzazko kasu guztiak geratzen zaizkigu adieraziak, Euskaltzaindiak euskara baturako onetsirik dauzkan formetan oinarrituz.

#### 10. *Euskal gramatika: lehen urratsak-2*

Gramatika batzordeak paraturiko lana.

Une honetan, azken frogetan, inprimategian dugu.

Bertan aditz sintagma aztertzen zaigu, alegia: aditza, laguntzailea nahiz trinkoa, aditz multzoa osatzen duten bestelako osagaiak; perfrasi multzoak eta abar. Halaber, aditz paradigmak ere agertzen zaizkigu.

#### 11. *Oinak*

Oinarrizko euskararako batzordeak prestatua (6. argitarapena).

Euskara ikasten ari direnentzat lehen mailako irakurgaiak.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

12. *Oinarriak*

Oinarrizko euskararako Batzordeak prestaturiko liburukia.

Euskara ikasten dabiltzan ikasleentzat hirugarren mailako irakurgaiak.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

13. *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*

Andrés de Poza.

Faksimilez egindako berrargitarapena laugarren mendeurrenean: 1587-1987. Urduñan jaio Errenaisantza denboretakoa.

Poza hizkuntzalaria, abokatua, matematikaria eta astronomoa izan zen. Bi liburu argitaratu zituen eta beste bat, foruei buruzkoa, argitaratu gabe daukagu Bizkaiko Foru Diputazioan.

1987.urtean, Euskaltzaindiak edizio faksimil batez, mila ale zenbaituak atera ditu. Kultur Ministraritzak emandako laguntzari esker argitaratu du Euskaltzaindiak Licenciado Pozaren laugarren mendeurrenean, hots, liburua, lehen aldiz, 1587.ean argitaratu baitzen.

Liburuaren titulua:

*De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria.*

Andres de Poza hau, Bizkaiko Jaurerriko abokatua zen XVI. mendean, Licenciado Andres de Poza: Salamanca-n eta Lovaina-n ikasia, Europan barrena egin zuen lan Erregeren aginduz eta haren izenean. Euskararik ba zekien? Ez dakigu.

Beraren emaztea Orozkokoa zenez zerbait jakitea ez da bat ere harriztekoa. Hala ere, ba dirudi euskara hurbil hurbiletik ezagutu zuela. 1987.urtean Euskaltzaindiak II. toponimia jardunaldiak direla eta argitara eman duen liburuan azaltzen dira Licenciado Pozaren ideiak hizkuntzalari buruz. Liburuan egiten du garai hartako Europako hizkuntzen zerrenda eta sailkapena, oso zehatza eta garai hartako bestek baino egokiagoa.

Adibidez, Albanierari buruzko datu estimagarriak eskaintzen dizkigu bertan. Hizkuntza hauek familiaka sailkatzen ditu, eta sailkapena —zabala eta hedatua— Espainian egin izan den bigarrena dugu eta Europakoen arteko lehenetarikoa.

Gaztelanian aurkitzen zituen eragin germaniarrak ere aztertzen ditu, huts gutxi eginez gainera, Eugenio Coseriu hizkuntzalari errumaniarrak II. onomastika jardunaldietako sarrera hitzaldian adierazi zuen bezalaxe,

Urduña hirian. Euskararen inguruan historian zehar mantendu izan diren zenbait ideia ere Licenciado Pozak eman zituen: hala, euskara eta iberikoaren arteko erlazioak eta euskara eta Kaukaso aldeko hizkuntzekin izan daitezkeen ahaidetasunak.

Idea hauek ez dute gaurkotasunik galdu eta berriki arte izan dira teoria hauen defendatzaile sutsuak. Licenciado Poza izan zen, bada, hipotesi hauen aintzindari. Gutxi da dakigu ere Licenciado Pozari buruz, komeni zaigu jakitea zerbaitegatik eskaini zaiola Bilbo erdi erdian kale bat. Sarri askotan gertatzen den legez, kalea ezagunagoa da ohoratu gura edo nahi duen pertsonaia baino.

Garai hartan Europako hizkuntzei buruz jakintsuek ziotena kontutan izanik, ezpairik gabe esan dezakegu gure Licenciado Poza jakintsua zela, asko zekiela, xehetasun handi eta anitz ematen bait dizkigu beraren lanetan. Beraz, Urduñako seme eta bizkaitar hau unibertsala edo jakite mailan orokorra zen.

#### 14. *Argitalpenen katalogoa. 1987*

Euskaltzaindiak berak bere kabuz edo eta beste batzuren laguntzaz edo babesaz argitaratu dituen lanen zehetasunak dakartzan liburukia, hots:

- 14.1. **Euskera** agerkaria: 45 zenbakitan sailkatua.
- 14.2. Euskararen lekukoak: 13 zenbaki.
- 14.3. *Iker* saila: 4 zenbaki.
- 14.4. *Onomasticon Vasconiae*: 2 zenbaki.
- 14.5. *Jagon* saila: 2 zenbaki.
- 14.6. Hiztegiak eta izendegiak: 9 zenbaki.
- 14.7. Soziolinguistika saila: 6 zenbaki.
- 14.8. Gramatika eta metodoak: 36 zenbaki. Hemen oharño bat, metodo sailean:  
26 liburuki - 350.000 ale baino gehiago argitaratu ditugu. Guzti hauek Iberduero enpresak babesturik.  
Oraintxe, *Iparragirre* (Jagon-2).

14.9. *Batzu*: 37 zenbaki.

14.10 *Jokin Zaitegiren itzulpenak*: 8 zenbaki.

*Orotara*: 180 bat argitarapen.

**B) EUSKALTZAINDIK BESTE BATZUREKIN 1987.URTEAN ARGITARATURIKOAK:**

15. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia (I)*  
Editorial Desclee De Brouwer, S.A. - Ediciones Mensajero, S.A.  
Koldo Mitxelenak paraturiko lehen liburukia.
16. *Zure argi kliskak*  
Felix Zubiagak paratua.  
1986.urtean "Felipe Arrese Beitia" olerki saria irabazi zuen lana.  
Bizkaiko Aurrezki Kutxa- Euskaltzaindia.
17. *Publikoari gorroto*  
Xabier Mendiguren Elizegik paratua.  
1986.urtean "Toribio Alzaga" antzerki saria irabazi zuen lana.  
Bizkaiko Aurrezki Kutxa- Euskaltzaindia.
18. *Carmen Vasconicum plus quingentis linguis*  
Gabriel Arestiren "nire Aitaren etxea defendituko dut" olerkiaren itzulpenak. Patxi Oroz Arizkunek paratua. Europako hizkuntzetara itzulia.  
Tübingeneko Unibertsitateak argitaratua, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz.  
Lehen liburukia, hiru izanen baitira.  
Liburuki hau Euskaltzaindiari eskainia dugu.